

txintxarri



Aurtengo lanaren islada

Antzerki eta Dantza Hamabostaldia itxi du Kukuka taldeak, antzezlan eta erakustaldi ugarirekin / 6-7

TXINTXARRI

Udari ongi etorria

Urte osoko oroitzen txarrak erreko dituzte lasarteoriatarrek San Joan suan / 2

Lasarte-Oriako
Udal Musika Eskolako
ikasleek doinu artean
eman diote amaiera
ikasturteari / 3

Iñaki Garciak irabazi
du aurtengo Squash
Txapelketa, Xabi
Azaldegi gainditu
ostean / 10

2 mō betaurreko:

Gama altuko progresibo
+
eguzkitako progresiboak

197€

Gure betaurreko
guztia **bilduma**
berrietakoak dira



Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com   

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA
ERRENTERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Jende ugari bildu zen iaz suaren bueltan Andatza plazan. TXINTXARRI

San Joan gaueko sua, sanpedroak berotzeko

Andatza plazan piztuko dute sua gaur, 22:00etan. Lehenago, kalejiran joango dira udalbatzako kideak udaletxe zaharretik, Erketz EDTko dantzariekin. Sua piztu aurretik zortzikoa eta soka-dantza dantzatuko dute Alboka eta Zero-Setterekin.

Txintxarri

Lasarte-Oriako sanpedroak ate joka daude, baina, urtero bezala, San Joan bezperako suak piztuko ditu lehenago festarako gogoak. Andatza plazan, betiko moduan, prestatuko dute sua, 22:00etan. Herrian ondo errotutako ohitura da San Joan suarena, eta, iaz bezala, aurten jende andana biltzea espero da plazan, urteko oroitzapen eta gertaera txarrak sutara botatzeko, eta udari ongietorria egiteko.

Sua piztu aurretik, udaletxe zaharretik kalejiran joango dira plazarantz. Udaleko korporazioa buru izango da kalejira horretan, baina izango ditu beste bidelagunak: Erketz EDTko dantzariak egingo dute bidea udalbatzako kideekin, hainbat musikarirekin batera.

Plazara iristean, San Joan zortzikoa dantzatuko dute, eta soka-dantza egingo dute. Dantzariak izango dute laguntza zeregin horretan: Alboka

abetesbatzak eta Zero-Sette akordeoi orkestrak jarriko diete doinua. Azkenik, sua 22:00etan piztuko dute.

Jatorri paganoa du San Joan jaiak, baina kristautasunak bere egin zuen, beste festa askoren moduan, San Joan Bataiatzaile-arengatik izen hori jarrita. Euskal Herrian lau haizetara zabaldu da usadioa, eta herri guztietako plaza nagusietan pizten dira suak. Gau horretan ia beti nahasten da sua festa giroarekin, musika eta dantzarekin. Baina beste elementuak ere agertu ohi dira tradizio horretan, ura eta landareak, adibidez. Inguruan, esaterako, ur bedeinkatua eta ur berria banatu izan ohi dira baserriz baserri San Joan sua erre eta gero. Modu berean, San Joan egunean elorri zuria eta erramuarekin egindako gurutzeak eta adarrak jartzen ziren ate eta lehiotetan, etxeak trumoietatik babesteko.

Egitaraua

Ekainaren 23a

- **18:00etan:** Jokoetako trofeoen banaketa eta lunch-a, Biyak Bat jubilatuko elkartearen.
- **21:30ean:** Udaleko korporazioa Andatza plazarantz abiatuko da. Erketz EDT dantza taldea, Alboka abesbatza eta Zero-Sette Akordeoi orkestra izango dira.
- **22:00etan:** San Joan sua piztuko dute plazan.

Ekainaren 26a

- **17:00etan:** Haurrentzako jolasak, Okendo palazan.
- **18:00etan:** Gimnastikako erakustaldia.



TXEMA VALLES

Xumelak amaitu du ikasturtea


Kurtso bukaerako afaria egin dute Xumela abesbatzan. Aurten 80 pertsonako taldea osatu dute, eta hogeiei emanaldi inguru egin dituzte. San Pedro jaietan ere emanaldia egingo dute, hilaren 29an, eguerdian, Sagardotegi kaletik abiatuta.



BIYAK BAT

Mahai jokoak, zaharren egoitzan

Gaur arte, arratsaldero mahai jokoetan lehiatu dira Biyak Bat zahar-etxean. Hamaika mahai jokoetara lehiatzeko aukera izan dute egun hauetan, eta gaur, ostiralean, banatuko dituzte sariak, 18:00etan.



TXINTXARRI

San Pedroko badiak abordatzen

Pasaiko badiak itxura bitxia hartu zuen joan den larunbatean. Kuadrillategiren egitasmoan parte hartzen duten 170 gazte inguruk abordatu zuten San Pedroko badia, begiraleekin batera. Lezokoak, Pasaikoak eta Lasarte-Oriakoak dira neska-mutilak.

Ikasturtea agurtzeko, azken musika saioa

Udal Musika Eskolako ikasleek kurtso amaierako ikuskizunak eskaini dituzte, Manuel Lekuona kulturetxean egindako bi saiotan. Adin guztietako ikasleak igo dira oholtza gainera ikasturtean ikasitakoa erakustera, ikus-entzulez lepo betetako aretoan

Txintxari

Udal Musika Eskolako neska-mutilek ikasturtean ikasitakoa praktikan jarri dute. Ez dute lan samurra izan, Manuel Lekuona kuturretako oholtza gainera ateratzean jendez gainezka baitzegoen aretoa. Guraso eta lagunen begiradapean, errepertorio zabala jo dute musika ikasleek, eta ikus-entzuleek txalo zaparradekin saritu dute haien lana.

Astearte eta asteazken arratsaldean amaitutzat eman zuten ikasturtea musikari gazteek; urtero bezala, azken ikuskizun batekin agurtu dute ikasturtea. Txikienek hasi zuten emanaldia asteartean, dantza ikuskizun batekin: *Kaxa galduaren bila goazen* filmeko soinu bandaren koreografia bat moldatu dute. Oholtza utzi aurretik, *Quién Manda/Hemen eta hor* abesti ezagunaren erritmora dantzatu dute gaztetxoek.

Musika ikuskizunak aurrera egin ahala, ikasle zaharragoak eta eskarmentudunagoak atera dira eszenatokira, musika tresna konplexuagoekin abesti zailagoak jotzera. Tronpeta, piano eta txistu doinuekin aberastu dute kontzertua.



Gaztetxoek dantzatu, astearteko emanaldian. TXINTXARRI

Kanturako abileziak ere erakutsi dituzte ikasleek: Huntza taldearen *Aldapan gora* kanta arrakastatsua abestu dute, trikitixa eta panderoaz lagunduta.

Azken abestietan entzun ahal izan dira biolinaren akordeak, pianoak lagunduta: Carlos Gardelen *Por una cabeza* eta Michael McLeanen *Czardas* piezak jo dituzte. Bakarka ere aritu dira pianoarekin, eta Chopin eta Mendelssohn konposatzaile klasikoaren obrak mitikoak jo dituzte.

Asteazkenean ere ordubete inguruko kontzertua eskaini zuten ikasleek. Gitarra elektrikoak, biolinak, txistuak eta flautak astinduta, Mozarten obrak, Mikel Urdangarinen *Badira hiru aste*, Esne Beltzaren *Ahantzi* eta Ken7ren *Itsasoa gara* abestiak jo dituzte. Kanturako abilezia ere irabazi dute ikasturte honetan; Tez Cadey eta Michael Gohlen artisten abestiak kantatu dituzte. Diploma jasota, udazkenean arte atsedena izango dute ikasleek.



NEURE KABUZ

GORKA ALVAREZ

Amets bat izan nun

Azkenaldian Twitter sare sozialean, orduoro bere ametsen inguruko txioak idazten ari den kazetari bat bada. Ametsen inguruan baino, izandako amets horiek labur kontatzen dituen. Deigarria egin zait eta egunero nabil bere txio horiei so eginez. Atseginak batzuk, utopikoak besteak eta tarteka tristeak ere kontatzen ditu. Gauero, maindire artean, mundu zirrarragarrian sartzen da. Ametsak ordea, ez dira gauez egiten ditugunetara mugatzen.

Gauean izaten ditugun ametsen ezaugarri nagusia, errealtatetik gertu edo urrun egon arren, beste mundu paralelo bateko fantasiako gertakiritzat bizi izaten ditugula izaten da. Badaude ordea, esna egiten ditugun ametsak ere. Begiak irekita ditugunean burutzen ditugun hauek, errealtatetik guk uste baino gertuago egon ohi dira asko eta ateak irekitzearekin, egunerokotasuneko lanean sinestearekin eta bereziki norberaren ahalegin maila eta ardurarekin dute zerikusia.

Guztiok amesten dugu begiak irekita ditugula. Lana bilatzeko ametsa, gustuko dugun mutilarekin egoteko ilusioa, kirol erronka berri batek sortzen digun zirrara... Oso mundu intimoa da ametsena eta aldi berean, gizakion proiektu eta erronken funtsa dira ametsak. Batzuk amets horri ilusioa deituko diote. Beste batzuek, ordea, helmuga. Beste batzuentzat, zorientasuna izan daiteke. Askorentzat heldu-ezineko esperantza hutsa.

Ametsak bete ahal izateko hiru ardatz nagusitan oinarritzen naiz ni. Ametsa nire buruan ikusi, bidea bilatu eta bertara iristeko oztopo nahiz zailtasun guztiekin gozatu. Amets horretara iristea zure esku egongo da beti; bai beti. Egunerokotasunean ematen ditugun pausoek, uste baino gertuago jarriko zaituzte zure ilusio eta ametsetatik. Agian, amaieran aurkituko duzuen hori, helmuga hori, ez da izango amets idealaren islada perfektua baina, pentsa ezazue, bidean izandako gertakari, esperientzia, oztopo, poz, eta, zergatik ez, tristura guztiekin zerbait ikasi eta gozatu ote duzuen. Orduan bakarrik, konturatuko zarete guztiak merezi izan duela. Amets hori zuena, pertsonala, intimoa eta errepika ezina izango delako. Egin itzazue zuen ingurukoak zuen ametsen partaide eta bizi itzazue, bizitzaz gozatzeko eta bakoitzaren buruarekin ongi sentitzeko tresna bikain bat bezala.

Amets bat, izan nun...

LAN-ESKAINNTZA

Ttakun Kultur Elkartearen informatikaria behar dugu.

Baldintzak:

- Euskara maila ona izatea
- Web eta sistemak kudeatzen trebea
- Programazioan trebea, webguneak Python eginak
- Datu baseen kudeaketa. SQL
- Lainoan lan egiten esperientzia
- Linux zerbitzarien kudeaketa

Curriculumak bidaltzeko:

ttakun@ttakun.eus
Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria
Tel: 943 37 14 48



ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- | | |
|-------------------|----------------------------|
| ✓ Odolkiak | ✓ Txistorra |
| ✓ Solomo antzutua | ✓ Solomoa baratxuritan |
| ✓ Etxeko txorizoa | ✓ Tripakiak, saltxitxak... |
| ✓ Basurde burua | ✓ Baserri pateak |

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51

'Alboka giroak' hartu du Brigitarren komentua

Ikasturte bukaerako emanaldia eskaini du Alboka abesbatzak asteburuan, Brigitarren komentuan. Hiru zatitan banatutako kanta sorta eskaini dute. Oihana Diaz eta Jon Sarasola kideak ere omendu dituzte; mende laurden daramate koruan

Iñigo Gonzalez

Ikasturtean zehar tentuz eta goxotasunez landu eta ikasitako guztia erakutsi zuten Alboka abesbatzako kideek Brigitarren komentuan, joan den igandean. Hiru zatitan banatutako emanaldia eskaini zuten. "Alboka giroa ez al duzue sumatzen airean? Guztiok hartzen gaitu; goza dezagun", esan zuten erreperorioaren ataletako bat aurkezten ari zirenean. Ikusleak izan ziren giro horren parte, eta, nola ez, gogotik gozatu zuten ordu eta erdiko kontzertuaz.

Montse Latorrek zuzenduta, lau pieza abestu zituen koruak lehenengo atalean: *Tourdion*,

Marions Les Roses, If you love me eta *Ave Maria*.

Erregistroa aldatu

Bigarrenean aldatu egin zuten erregistroa. Besteak beste, Beatles Erresuma Batuko taldearen *Let it be* abestu zuten, eta baita *Si la nieve resbala* ezaguna, Julio Dominguez zuzendariaren moldaketekin.

Hirugarren eta azkeneko zatia herri abestiekin osatu zuten. Horien artean nabarmentzekoa da *Argizaiola*. Dagoeneko gure artean ez dauden bi pertsonari eskaini zioten kantu hori: Zero-Sette akordeoi taldeko lehendakari eta LOKEko tenis

irakasle Xabier Gonzalezi, eta Brigitarren komentuko kide izandako Maria Pilar Erauskini.

Omenaldiak ez ziren abesti horrekin bukatu. Oihana Diaz sopranoaren eta Jon Sarasola tenorearen ibilbideei aitortza egin zieten abesbatzako kideek. Zapia eta txapela jarri zizkieten soinean, hurrenez hurren, errekonozimendu gisa. Alboka Txiki koruan hasi ziren abesten biak, artean umeak zirela. 25 urte daramatzate Albokan.

Ikasturte bukaerako emanaldia irribarre batekin amaitu nahi izan zuten, eta, *Barre egin nahi dugu* abestuz itxi zuten emanaldia Albokako kideek.



Maripi Sarasolak koplak abestu zizkien Oihana Diaz eta Jon Sarasolari. TXINTXARRI

Euskal dantza sorta, herriko festen aurrekari

Urtean zehar behin eta berriz landutako dantzak plazaratu ditu Erketz EDTk Okendo plazan, larunbatean. Gipuzkoako dantzak, Zuberoakoak, Erronkariko ttun-ttuna, Lapurdiko lhauteria, Erketz Txikiko kideen emanaldiak... Ez da ezer falta izan

Iñigo Gonzalez

Erketz EDT taldeko kideak prest daude San Pedro jaietarako. Duela hiru aste bezala, euren erreperorioiko dantza onenak eskaini zituzten Okendo plazan. Eguraldi ona aprobetxatuz batek baino gehiagok egin zituen planak herrikan kanpora joateko, baina, hala ere, ikusle ugari gerturatu ziren emanaldiaz gozatzera.

Haur, gazte zein heldu, makina bat herritar elkartzen dira astero entseguetan, euskal dantzen teknikak ikasteko. Asteburuan erakutsi dute fruituak eman dituela urtean zehar egindako ahaleginak. Hogeita hamar emanaldi ingururekin osatu



Erketzeko dantzari taldea, bigarren zinta-dantza egiten. TXINTXARRI

zuten antolatzaileek festen aurreko emanaldia.

Gipuzkoako dantzak plazaratu zituzten aurrena. Hasteko, nola ez, agurra. Ondoren, ezpata dantza ikusgarria. Bloke hori itxi aurretik, beste lau dantza eskaini zituzten: upelategi, punta motz, uztai txiki eta jorra-dantza.

Gipuzkoatik, Zuberoara: bertan egin ohi den makil dantzarekin hasi ziren. XVI. mendean sortutako *Branle* deituriko modalitatea plazaratu zuten gero. *Koadrillek* dantzatzuz itxi zuten bigarren atala. Helduen taldeak eskaini zituen hiru dantza horiek.

Kortesko makil-dantzaz gozatu zuten ikusleek gero. Sarrera eginez ekin zioten dantzariak hirugarren blokeari. Paseilloa dantzatu, eta lehenengo zinta-dantza plazaratu zuten. Baltsa izan zen atal horretako laugarren dantza, eta bigarren zinta-dantza egin zuten gero. Makil-jokoarekin utzi zuten Okendo plazako eszenatoki inprobisatua.

Erketz Txiki taldeko gazteek jarraitu zuten emanaldiarekin. Igitai dantza egin zuten aurrena. Ondoren, *Polka de babes*. Esku-dantza eta txulalari emanaldiekin

bukatu zuten. Ikusleek gogotik txalotu zuten neska-mutil gazteen lan ederra.

Sardinerak, lhauteria...

Dantza atalak itxi ahala, gero eta gogo gehiago zituzten ikusleek Erketzeko dantzarien trebezia gozatzeko. Eta egin zuten.

Ikustekoa izan zen Lapurdiko sardineren emanaldia, otarreak eskuetan hartuta. Musika denborak hartu zuten lekukoa gero. Erronkariko ttun-ttuneroek ere piztu zuten ikusleen arreta.

Larunbateko emanaldia ixteko, Lapurdiko lhauteria ekarri zuen Okendo plazara Erketz dantza taldeak. Sei dantza plazaratu zituzten dantzariak bloke horretan: hasteko, *Xinple*; *Marmuts* eta *Zapataindantza* ondoren; Lapurdiko makil-jokoekin jarraitu zuten; eta, amaitzeko, *Ahuntxa* eta *Kontra-dantzak*. Ikusleek ia-ia nekatzeraino jo zituzten txaloak, dantzarien lan bikaina eskertuz.

Gauean Arrieskalleta elkartean berriro zituzten indarrak Erketz EDTko kideek. Igande goizean Brigitarren komentuko korpusean ere dantzatu zuten.



Ehun Vespa eta Lambretta inguru egon ziren ikusgai Okendo plazan, larunbat eguerdian. TXINTXARRI



Antonio Mercero plazatik abiatu ziren motor gidariak. TXINTXARRI

Motor hotsak, asteburuan ere

Motorrek hartu dute Lasarte-Oria asteburuan. Hamaika tokitatik etorritako Vespa eta Lambrettek koloreztatu dituzte Jaizkibel, Okendo, Andapa eta Adarra plazak eta kaleak

Iñigo Gonzalez

Motorzaleen bilgune izan da Lasarte-Oria asteburuan. Vespa eta Lambretta erakusketa antolatu du Euskadiko Rally Scooter Club elkarteak, hirugarrenez: motor burrunbak

entzun dira etengabe herrian barrena. Bi gurpileko ibilgailuen hotsek ez dute eguraldi ona uxatu, eta nabaritu da: iaz baino gidari gehiago animatu dira etortzera.

Ostiral arratsaldean iritsi ziren motor gidariak. Jaizkibel plazan

eman zuten izena, eta ikusgai jarri zituzten ibilgailuak: auzotar dezente gerturatu ziren Vespak eta Lambrettak ikustera. Buggy tabernan afaldu zuten, eta gaueko parrandarako prestatu ziren: kaskoak, jakak eta eskularruak

jantzi, motorra martxan jarri eta Buenetxea tabernara joan ziren. Psicoacoustic taldeak kontzertua eskaini zuen aurrena, eta Cazorla zein Marcos Carnaby DJek ordu txikieta arte luzatu zuten festa.

Bati baino gehiagori kosta zitzaion larunbat goizean ohetik altxatzea, baina ez ziren damutu. 10:30etik 12:30era arte Okendon utzi zituzten motorrak, herritarrek ikus zitzaten. Eguraldi ona lagun, iaz baino beteago zegoen plaza. Ehun Vespak eta Lambrettak koloreztatu zuten Okendo.

Gidariak hamaiketako egin zuten erakusketak iraun bitartean. Bi orduz Okendon egon eta gero, motorrak martxan jarri eta 60 kilometroko ibilbidea egin zuten; Donostiako Ulia ostatuan hartu zituzten indarrak. Bazkalostean, antolatzaileek sariak banatu zituzten, eta

zozketak egin. 18:00etarako itzuli ziren motor burrunbak Lasarte-Oriara. Zumaburuko Andapa kalean jarri zuten larunbateko bigarren eta azken erakusketa.

Arkupe tabernan afaldu eta gero, bezperan bezala, DJek eta kontzertuak jarri zuten giroa Buenetxean eta inguruetan. Bobkat 65 taldea igo zen oholtzara aurrena; Rudy Garcia eta Mosoul DJek hartu zuten erreleboa.

Laugarrena, Adarra kalean

Igande eguerdian egin zuten laugarren eta azken erakusketa. Aurreko eguneko parrandaren ondoren, Adarra kalean elkartu ziren Vespa eta Lambretta gidariak.

Bermuta edaten egin zioten aurre ajeari hainbat motorzalek. Extremeña elkartean bazkaldu, eta asteburu bikaina pasa eta gero, euren etxeetara bueltatu ziren motorzaleak.

Harremanak "giro onean" eta berdintasunean bizitzeko gida

Gaztetxoek bikote eta laguntasun harremanak modu osasuntsuan bizitzeko gida aurkeztu du udalak

Martin Vicioso

Eguno nerabeek bizi dituzten harremanak kezkatuta, Lasarte-Oriako Udalak gaztetxoei zuzendutako eskuorria aurkeztu du. Hori dela eta, bi jarrera mota bereizi dituzte gidan lan egin

du ten teknikariek: "rollo ona" sortzen dituztenak batetik, eta "rollo txarra" sortzen dutenak bestetik. Modu grafiko eta ulerterrazean, jarrerak identifikatu ahal izango dituzte. Halaber, "giro txarra" sortu

ondorengo urratsak emateko laguntza jasoko dute eskuorrian.

Gurasoentzako lagungarri diren zenbait aholku ere bildu dituzte.

Bestalde, gaztetxoen artean seropositibo kasuetan emandako gorakadak kezkatuta, kanpaina berria abiatu dute San Pedro jaletara bideratuta, Gehiturekin batera. Gazteek gehien zapaltzen dituzten tabernetan doako preserbatiboak eskainiko dituzte, informazio gida batekin. Halaber, farmazietan doako azterketak egingo dituztela azaldu dute.



Udal ordezkari eta teknikariek aurkeztu zituzten kanpainak. TXINTXARRI

OHOLTZAN GOZATZEN

ANTZERKI ETA DANTZA
HAMABOSTALDIA
BUKATU DU KUKUKAK



Ez gaituzte botako lana taularatu zuen helduen antzerki taldeak ostiral arratsaldean. TXINTXARRI



Jende z lepo zegoen Manuel Lekuona kultur etxea igande arratsaldean, Euskal Dantza Sorkuntzan aritzen diren



Dantza garaikidea ikasten dute herriko hainbat gaztek. Larunbatean igo ziren oholtzara. TXINTXARRI



Gazteen antzerki taldeak itxi zuen larunbateko emanaldi sorta. Zuloria lana aurkeztu zuten. TXINTXARRI



herritarren koreografiak ikusteko. Gogotik txalotu zituzten ikusleek emanaldi guztiak. TXINTXARRI



Igande arratsaldeko Euskal Dantza Sorkuntza emanaldi bat. TXINTXARRI



Euskal dantzan aritzen diren taldeek igande goizean erakutsi zuten urtean zehar ikasitakoa. TXINTXARRI



Ikuskizun ederra eskaini zuen Euskal Dantza Sorkuntzako gazte talde honek. TXINTXARRI

PLAZAN BAZAN

Hilabeteko azken Txintxarri aldizkarian haurrentzako denborapasak aurkituko dituzu: jolastu Maripurtzil eta Pellozirirekin! Soluzioak eta jolas gehiago, www.plazanbazan.eus atarian. Sartu eta gozatu!

Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

Itzala



Zein da mendigoizaleari dagokion itzal zuzena zortzi hauen artetik?



Esaera



Txerri gosetiak...

- ... potoloak izaten ditu titiak
- ... inguruan beti euliak
- ... ezkurra amets
- ... amets bitxiak
- ... lotan ematen du eguna
- ... ezertarako denborarik ez
- ... lotan jaten du
- ... platera hutsik
- ... inurriak lagun

Zeeep?!

Ui, ene! Baina zer demontre dio Maripurtzilek?! Konturatu zara? Alderantziz ari da hizketan... Esaten ari denari taxua hartzen ez badiozu, jarri orria ispiluarren aurrean eta berehala asmatuko duzu esaldia.



Etxetik gertu, etxolatxo bat egin dute Maripurtzilek eta Pellozirik, lagunekin elkartzeko. Baina, baina, hori da anabasa!

Ea aurkitzen dituzun elementu hauek:



lore gorria



dordoka



tutua edo biberoia



erlea

Zuhaitzeko etxola


Ea aurkitzen dituzun beste elementu hauek ere:

- Txiklea ● Pelloziriren ordenagailu eramangarria ● Bi tximeleta ● Eskuargi bat ● Bi sagu ● Barraskilo bat ● Igela ● Plastikozko ur botila ● Hontza ● Txerrikumea ● Sugea



ZazpiKoa

Aurkitu bi irudien artean dauden zazpi aldeak.



Iñaki Garciak irabazi du 29. Squash Txapelketa

Iñaki Garciak altxa du 29. Squash Txapelketa Sozialeko txapelkun garaikurra, 2013an eta 2015ean egin bezala. Xabi Azaldegirekin neurtu ditu indarrak Garciak finalean. Iker Cañedo geratu da hirugarren, eta Oswal Cañedok irabazi du kontsolazio fasea

Iñigo Gonzalez

Larunbateko partidak bukatu eta berehala, Xabi Azaldegi finalistak komeriak zituen belauniko egoteko, kazetariak sarituen talde argazkiak atera bitartean. Ez da harriztekoa: sekulako ahalegina egin zuten Iñaki Garciak eta berak 29. Squash Txapelketa Sozialeko final handian. Bosgarren eta azken jokora arte inork ez zekien nork altxako zuen txapelkunaren garaikurra. Gauza bakarra zegoen argi: bietako edozeinek merezi zuen, ikuskizun ederra eskaini baitzuten.

Hasi eta segituan ikus zitekeen bi finalisten arteko neurketa luzerako joango zela. Beso ugariko olagarroak bailiran, pilota guztietara iristen ziren Garcia eta Azaldegi. Teknika bainoago, erresistentzia fisikoa izan zen gakoa.

Azaldegik irabazi zuen lehenengo jokoa, 17-16. Garciak berehala erantzun zion kolpe horri (5-15). Hirugarrenean berriro aurreratu zen gerora txapelkunorde izango zena, 15-12 gailenduta. Hortik aurrera erakutsi zuen Garciak jokalaria zaildua dela, eta esperientzia gehiago daukala finalean: 4. eta 5. jokoak poltsikoratu (15-17 eta 6-15) eta hirugarrenez irabazi



Finalak jokatu eta gero banatu zituzten sariak antolatzaileek. TXINTXARRI

zuen squash txapelketa. 2013an eta 2015eko ediziotako kopak ere etxean dauzka.

Kontsolazioa eta 3. postua

Iazko txapelkun Iker Cañedok osatu du txapelketako podiuma. Kinin Calvoren aurka jokatu zuen, 3. postua nork eskuratuko. Lau jokotan nagusitu zen Cañedo: 12-15, 15-13, 15-11 eta 15-13. Kontsolazio fasea, berriz, Oswal Cañedok irabazi du, Diego Santanari gailenduta. Lau joko behar izan zituen: 16-17, 15-3, 15-9 eta 15-4.

Palmaresa

Hamarkada honetan squash txapelketa soziala irabazi duten jokalariek.

- 2010: Agustin Erkizia.
- 2011: Alberto Udabe.
- 2012: Kinin Calvo.
- 2013: Iñaki Garcia.
- 2014: Kinin Calvo.
- 2015: Iñaki Garcia.
- 2016: Iker Cañedo.
- 2017: Iñaki Garcia.



Ez ahazteko moduko denboraldia egin du Easo 03 Menditxuk. ENDIKA MARRAHI

Navarro ahizpek saskibaloari urte bikaina itxi dute Pontevedran

Easo 03 Menditxu saskibaloari taldean jokatzeko bi herritarrek; 7. geratu dira Espainiako txapelketan

Txintxarri

Sekulako denboraldia egin du infantil mailako Easo 03 Menditxu taldeak. Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak irabazi ditu, eta Espainiako zortzi talde onenetako bat izan da. Bi jokalaria lasarteoriatar aritu dira aurretik Donostiako taldean: Judith eta Garazi Navarro ahizpak.

Joan den asteburuan jokatu dute Espainiako txapelketa, Pontevedran (Galizia). Estatu mailako 32 talde onenak aritu dira nor baino nor gehiago. Lehenengo faserako launa taldeko zortzi multzo osatu dituzte antolatzaileek. Final zortzirenak jokatzera talde bakoitzeko bi onenak sailkatu dira.

D multzoan lehiatu da Easo 03 Menditxu. Hiru arerioak, hauek: Ponce Valladolid, Basket Almeda eta CN Helios. Lehengo jardunaldian 57-61 galdu zuten donostiarrek Basket Almedaren

aurka. Beste bi partidak irabazi beste aukerarik ez zeukaten hurrengo fasera sailkatzeko, eta hori egin zuten: 55-58 eta 71-58 gailendu ziren Valladolid eta Heliosen aurka, hurrenez hurren.

Bi garaipen eta porrot bat hiru partidatan. Balantze hori aski izan zuten final hamaseirenak jokatzeko. Lehenengo fasean baino komeria dezente gutxiago izan zituzten kanporaketa horretan: 73-48 irabazi zituen Vigoko Mariano Franciscanas taldeari, eta estatu mailako zortzi talde onenetan sartu ziren.

Bi partidatara zeukaten finala. Ametsa errealtate bihurtzetik gertu. Behar baino lehenago esnatu ziren, ordea. Borreroa ezagutzen zuten lehendik ere: Stadium Casablanca, Minikopatik at utzi zituen talde bera. 58-75 irabazi zuten Zaragozakoek. Txapelketa Bartzelonako Maresme taldeak irabazi du.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

IGERIKETA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTo igerilari junior eta absolutuek Udako Gipuzkoako Txapelketa lehiatuko dute
Larunbata eta igandea. 10:30 eta 16:30. Azpeitiako kiroldegia.

TXIRRINDULARITZA

GAZTETXOAK TXAPELKETA

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako kadeteek Gaztetxoak Txapelketaren barneko San Juan saria lehiatuko dute.
Igandea. 10:30. Agurain.

GIPUZKOAKO ITZULIA

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako juniorrak Gipuzkoako Itzulian parte hartuko dute.
Ostiraletik astelehenera. Zestoa, Olaberria, Andoain eta Zarautz.

ARRAUNA

GIPUZKOAKO LIGA

Intza Fernandezek eta Donostiarrak Gipuzkoako Ligako bigarren eta hirugarren jardunaldiak jokatu dituzte -FEGEMU eta Portugalete Uri Urena ikurrinak-.
Igandea. 10:30. Agurain.

TRIATLOIA

9. EMAKUMEZKOEN TRIATLOIA

Herriko triatloilari batzuk Donostiako 9. Emakumezkoen Triatloian lehiatuko dira.
Larunbata. 15:30. Kontxako hondartza, Donostia.

ONDITZ OROITUZ

Herriko triatloilari batzuk Donostiako Onditz Oroitz Triatloian lehiatuko dira.
Larunbata. 09:30. Kontxako hondartza, Donostia.

PILOTA

LAU TERDIKO EKIALDEKO FASEA, FINALA

Solano (Intza) - Zangitu (EPL)
Ostirala. 19:00. Michelin pilotalekua.

PADELA

HERRIKO TXAPELKETA, FINALAK

Kristina Dos Santos/Elena Bendito - Itziar Bermudez/Maria Eugenia Xabi Ansa/Urko Sagastibeltza - Gontzal Serres/Ruben Ortiz
Larunbata. 09:30 eta 11:00. M. Chourraut kiroldegiko padel pistan.

MENDI LASTERKETAK

TRIKUTRAIL

Endika Gartzia herritarrek Etxarri-Aranatzeko 21 kilometroko IV. Trikutrailean parte hartuko du
Igandea. 09:30. Etxarri-Aranatz.

HERRI LASTERKETAK

SAN MARTZIALERA IGOERA

Raul Gomez Margallo herritarrek San Martzialgo igoera atletikoan parte hartuko du
Larunbata. 10:30. Irun.

Urrezko domina irabazi du Chourrautek Pragan

Ezin hobeto ekin dio Munduko Kopari piraguitak. Txekiako hiriburuan lehiatu da asteburuan, eta urrezko domina irabazi du. Finalean ez du akatsik egin, eta Kimberley Wodds britainiarrak baino 24 ehuneko azkarrago osatu du ibilbidea lasarteoriatarak

Txintxarri

Proba bat eta urrezko domina bat. %100eko eraginkortasuna, oraingoz behintzat. Pragan hasi da K1 slalom modalitateko Munduko Kopa, eta Maialen Chourrautek irabazi du aurreneko proba. Ezin hobeto hasi du txapelketa herritarrak.

Gogotik izerditu behar izan zuen 33 urteko piraguitak urrea kolokatzeko. Kimberley Wodds baino 24 ehuneko azkarrago osatu zuen ibilbidea Chourrautek. Bietako inork ez zuen zigorrik jaso finala jokatu bitartean; segundorik ez zitzairen gehitu euren markei, beraz. 104,68 segundotan geratu zuen kronometroa lasarteoriatarak. Woddsen 104,92ko marka egin zuen.

Denbora azkarrena Ricarda Funk alemaniarrek egin zuen, berez: 104,06 segundo, baina epaileek bi zigor ezarri zizkieten. Hortaz, lau segundo gehitu zizkieten bere markari, eta brontzezko dominarekin konformatu behar izan zuen.

Ekaina maila ederrean hasi du Chourrautek. Hilabete hasieran zilarrezko domina irabazi zuen Esloveniako taldekakoan, Irati Goikoetxea eta Marta Martinezekin batera. Bakarkakoan ez zen horren fin



Ondo ekin dio Chourrautek Munduko Kopari. LUCAS M. FARRAPEIRA

aritu, eta seigarren postua eskuratu zuen.

Hurrengo asteburuan 2016-2017 denboraldiko kirolari onenaren saria eman zion Murtziako UCAM unibertsitateak.

Augsburg eta Leipzig orain

Pragan lortutakoa dastatzeko denborarik ez dauka apenas piraguita lasarteoriatarak. Asteburu honetan jokatu du Munduko Kopako bigarren proba, Augsburgen (Alemania). Eta, hirugarrena, datorren astean, Alemanian baita ere; Leipzig

hirian, hain justu. Pasa den igandean lortutako emaitza errepikatzen saiatuko da Chourrautek.

Pixkanaka-pixkanaka gerturatzen ari da iraileko hitzordu handia. Paun (Frantzia) jokatu du aurtengo Munduko txapelketa. Chourrautek sarritan entrenatzen du bertako instalazioetan, eta gogotsu dago txapelketa horretan parte hartzeko. Dena dela, berak askotan gogorarazten duen bezala, egunetik egunera piraguita hobea izatea du xede.

Zazpigarren postuan hasi du Donostiarrak Gipuzkoako Liga

Intza Fernandez herritarraren traineruak irabazleak baino 41 segundu gehiago behar izan zituen amaitzeko

Martin Vicioso

Larunbatean hasi zen Gipuzkoako Emakumeen VIII. Traineru Liga, eta Intza Fernandez lasarteoriatarren Donostiarra aurrendenboraldian erakutsitako maila beretsuan lehiatu zen. Zazpigarren postuan bukatu zuten estropada, 41 segunduko galerarekin. San Juan-Iberdrola izan zen onena, erlojuaren kontrako esfortzua 10:31,73tan amaitu ostean.

Hala, lau puntu bildu dituzte donostiarrak lehenengo jardunaldian. Badirudi ohorezko postuak oraindik urrutiegi daudela traineru gaztearentzat. Dena den, sailkapenaren erdian lehiatzeko adinako maila erakutsi dute Intza Fernandezek eta bere taldekideek.

Bilboko Itsasadarrean jokatu zuten estropada Gipuzkoako Ligan aritzen diren hamar



Intza Fernandez. IÑAKI SUAREZ

taldeek, udaletxetik Deustuko Unibertsitaterako luzeak eginez.

Asteburu honetan, bi hitzordu dituzte Donostiarrak eta Gipuzkoako Liga lehiatzen duten beste bederatzita taldeek: Pasai Donibanen larunbatean eta Portugaleten igandean.

Brontzezko domina eskuratu du Altunak erlojuaren kontra

Mendian ederki ibiltzen dela erakutsia du Iñigo Altuna txirrindulariak. Erlojuaren aurka ere aurpegia ematen duen horietakoa dela frogatu zuen herritarrak Aizarnazabalen jokatu duen Gipuzkoako Erlojupeko Txapelketan.

Hirugarren postua eskuratu zuen, 21 kilometroko ibilbidea 27:59 minututan amaitu ondoren.

Ampo taldeko Xabier Murgiondo garaileak 30 segundo gutxiago behar izan zituen. Altunaren taldekide Oier Ibargurenak lortu zuen zilarrezko domina, 27:52 minututan ibilbidea amaituz.

Asteburuan Tolosan lehiatuko da Jira-Bira Grupo Eulen taldeko txirrindularia, Anzaren oroimenekoan

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako Oier Urbizuk, berriz, lan txukuna egin zuen Gipuzkoako Txapelketan. 18. postuan amaitu zuen, liderrarengandik 1:41 minutura.

Gipuzkoako Txapelketan 11 domina eskuratu dituzte alebinek

Buruntzaldea IKTko igerilari alebinek lan txukuna egin zuten Irunen jokatu duen Gipuzkoako Txapelketan

Txintxarri

Guztira, 11 domina etxeratu zituzten Buruntzaldea IKT taldeko igerilari alebinek Gipuzkoako Txapelketan. Horiekin batera, Unai Somovillak Espainiako Txapelketarako

txartela eskuratu zuen. Izan ere, gutxieneko denborak egin zituen 100 metro bular eta 100 metro bizkar estiloetan eskuratutako zilarretan. Horietaz gain, 200 metro bizkar eta 200 metro bular estiloetan ere bigarren izan zen.

Nora Imazek gauza bera eskuratu zuen 800 estilo libre kategorian.

Bestalde, podiumeko hirugarren koskara igo ziren Eneko Elizasu -1.500 metro estilo librean- eta Aintzane Sarobe -100 metro bikar estiloan-.

Azken dominak taldeka irabazi zuten Pello Ibargoyenek, Unai Somovillak, Eneko Elizasuk eta Iker Felipek. 4x100 estiloetan brontzezkoa etxeratu zuten.

Nerea Santosek eta Ane Artolak ere maila ona erakutsi zuten.



Gipuzkoako Txapelketan lehiatu ziren alebinen talde argazkia. BURUNTZALDEA IKT

KOMIKIA



Senior A mailako gimnastika erritmiko taldeak koreografia ederra eskaini zuen larunbatean. TXINTXARRI



Jauzi ikusgarriak egin zituzten judoka gaztetxo zein helduagoek igande goizean. TXINTXARRI

Denboraldian zehar ikasitakoa erakusten

Denboraldi bukaerako erakustaldiak egin dituzte LOKE kirol elkarteko gimnastika erritmiko zein judo alorreko kirolariek asteburuan zehar, Maialen Chourraut udal kiroldegian. Eraitza oso onak eskuratu dituzte 2016-2017 kirol sasoiari

Iñigo Gonzalez

Kirol denboraldi osoan zehar ikasitakoa erakusten itxi dute 2016-2017 sasoiari LOKE kirol elkarteko gimnastika erritmiko eta judo alorreko. Maialen Chourraut udal kiroldegira joandako ikusleak izan dira kirolarien koreografia eta jauzi ikusgarrien lekuko.

Maite Ruedak zuzendutako gimnastek larunbat arratsaldean egin zuten erakustaldia. Haur, nerabe eta gazteak bikain aritu

ziren tapiz gainean beste behin. Kirolarien guraso eta lagunek txalo zaparrada luzeak eskaini zizkieten arratsalde osoan. Tapizetik jaitsi ahala, gimnastek hainbat argazki atera zituzten kiroldegiko *photocallean*.

Igande goizean igo ziren tatamira Gorka Aristegik prestatzen dituen judokak. Entrenatzaileak berak egin zituen aurkezle lanak: mikrofonoa eskuan hartu eta erakustaldira bertaratutakoei esplikatu zien

judokek egingo zituzten mugimendu guztiak. Haurrek zein gazteek jauzi ikusgarriak egin zituzten emanaldiak iraun bitartean. Denboraldi honetako sariak entregatu zituzten ekitaldia bukatu aurretik.

Kirol emaitza bikainak

Ez dute berehalakoan ahaztuko 2016-2017 denboraldia gimnastek eta judokek. Kirol emaitza paregabeak erdietsi dituzte han eta hemengo tapiz zein tatamietan.

Bakarka zein taldeka, maila oso altua eman dute gimnastek. Alazne Gonzalez seniorra podiumeko bigarren koskara igo zen Euskadiko txapelketan. Horrekin aski ez eta Gipuzkoakoa irabazi zuen Senior B kategorian. Zinta eta pilotekin aritu ohi da normalean herritar gaztea.

Taldeka ere lortu dituzte balentria aipagarriak. Senior A kategorian lehiatu ohi diren bost gimnastek brontzezko domina jantzi zuten Eibarren jokatuako Gipuzkoako txapelketan.

Harrobi lana ezin aipatu gabe utzi: txiki-txikitatik hasten dira gaztetxoak gimnastika erritmikoa egiten, eta talde polita osatu dute azken urteetan. Etorbizuna badauka LOKEko gimnastika erritmiko sailak, beraz. 84 gimnasta aritu ziren iragan asteburuan.

Gorka Aristegik urteak daramatza judoa gure herrian sustatzen, Maialen Chourraut

kiroldegiko tatamian. Kirolari kopuruagatik txiki geratu ohi zaizkie udal instalazioak, baina, halere, zeresan handia eman ohi dute txapelketetan, urteak joan eta urteak etorri.

Aurtengoa ez da salbuespena izan. Eneko Eizagirre gaztea Europa mailan lehiatzera iritsi da Coimbran (Portugal). Brontzea eskuratzeko lehiari sartzeko borroka galdu eta meritu handiko zazpigarren postua eskuratu zuen. Infantil, kadete eta jubenil mailako judokek ere makina bat domina eskuratu dituzte aurretik.

Kirol emaitzei dagokionez, ez ahaztekoa izaten ari da aurtengo denboraldia (atletismoko kideak lehiari ari dira oraindik). Halere, une txarrak ere pasa ditu klubak; tenis saileko irakasle Xabier Gonzalez zendu da orain dela gutxi. Hori dela eta, LOKEko arduradunek bertan behera utzi dute urtero egiten duten denboraldi bukaerako bazkari eta ospakizuna.

ZORION AGURRAK




Izaro
Zorionak printzesa!
Muxu asko gurasoen,
Lunaren eta familia
osoaren partez!!



Alazne
Zorionak!! Ondo pasa
zure familiaren
partetik!!




Mario
Zorionak txapeldun!! 7
urte!! Muxu handi
handiak familia
osoaren partetik. Asko
maite zaitugu!



Julen
Zorionak pottoko, zure
7.urtebetetzean!!!
Besarkada eta muxu
handi-handiak guraso,
anai eta senideen
partez!!!



June
Zorionak bihotza, zure
7. urtebetzean. Super
ondo pasa zure festan.
7 txoko-marrubizko
muxu zure familiaren
partetik. Asko maite
zaitugu printzesa!!



Alex
Zorionak Alex, zure 3.
urtebetetzean. Ama,
aita eta Kenai. Asko
maite zaitugu!



Alvaro
Zorionak txapeldun!
Ondo pasa zure
egunean. Muxu asko,
Sergiorene eta zure
gurasoen partetik.
Maite zaitugu.



Ekain eta Nora
Zorionak bihotzak!
Jada 7 eta 4 urte!!
Ilargira eta buelta
maite zaituztegu.
Muxu potoloak, aita,
ama eta familiaren
tetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en

txintxarri.eus/zorionagurra eta *Bidali zure zorion agurra* formularioa bete.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali

txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Bulegora

Etor zaituz Txintxarriko bulegora edo deitu 943 37 14 48 telefonora.

SUDOKUA

5	9				3			8
		2	4		6	5	1	3
		1	8		7	6		
1	5	9	7			8	3	
		8		1				6
6		4		3	8		5	1
		5	3		1		4	
2				7				5
8	1		2					9

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629

EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184

KIROLDEGIA: 943 376 182

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:

943 376 181

GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179

KIUB: 943 361 605

UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621

MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960

DYA: 943 464 622

GURUTZE GORRIA: 943 363 953

UDALTZAINAK: 943 362 442

ERTZAINZA: 943 288 888

SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Aterpeako argazkiak

Lasarte-Oriako Merkatarien Elkarte Aterpeak 25 urte beteko ditu datorren urtean. Hori dela eta, elkartearekin zerikusia duten argazkiak bildu nahi dituzte, eta, deia luzatu dute, argazkiak dituzten herritarrak elkarteko kideekin harremanetan jar daitezten.

Odol ematea

Hilabeteko azken astelehenean, ekainaren 26an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Ondol emaile taldeko kideek herritarrei deia egiten diete egun horretan odola ematera gerturatu daitezten. Anima zaituzte, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Zikiro afaria

Asteartetik aurrera, sanpedroetako Zikiro Afarirako txartelak erosi ahal izango dira 20 eurotan Jalgi tabernan eta Ttakun Kultur Elkartearen. Ekainaren 28an egingo da aurten, arratsaldeko 21:30ean. Menua honakoa da: zikiroa, postrea eta kopa.

Datorren asteko TXINTXARRI

Lasarte-Oriako San Pedro jaiak direla eta, TXINTXARRI aldizkariak ale berezia argitaratuko du datorren asteartean, hilaren 27an. Hori dela eta, herritarrek argitaratu nahiko lituzketen oharrak, gutunak edo zorion agurak astelehena baino lehen bidali beharko dituzte.


GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak:

Gettoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria / txintxarri@txintxarri.eus

Patxintxi sariak

*Bozkatzeko epea ekainaren 28an bukatuko da,
sartu Nahuneko sare sozialetan eta eman bozka zure irabazleei!*



AZOKA TXIKIA

1. LANA

ESKAERA
Emakumea eskaintzen da adineko pertsona edo umeak zaintzeko. Interna bezala ere lan egiteko prest 631655499

Latineko, ingeleseko eta euskarazko klaseak ematen dira.

Orduka lan egin nahi duen emakumea naiz. Ordu kopuru jakin bat lan egiteko ere prest nago, baita gauetan aritzeko ere. 634278198 3.

1. ETXEBIZITZA

SALDU
Garaje marra alokatzen dut Donostian (Ondarretan) 645706658

Garaje itxi bat alokatzen dut, Iñigo de Loiolan. Telefonoa: 686674552

Garaje marra alokatzen dut Atsobakarren, Golf plazan, Garaikoetxea eskolaren parean. Autoarentzat edo motorearentzat egokia. Handia eta sarbide onarekin. 659 02 19 45

Gurpil-aulki elektriko bat saltzen dut, Quicke Tango markakoa. Telefonoa: 629 443 73

ALOKAIRUA

Etxebizitza alokatzen da Sasota auzoan. Bi logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649526766

Pisu bat alokairuan behar dugu. Telefonoa: 667232300


Huelvan etxe bat alokatzen dut, hondartzatik gertu. Inguruan golf zelaia, igerilekua eta padel pistak ditu. Telefonoa: 615645156.

3. BESTELAKOAK

ESKAERAK

6 urteko alaba eta urte eta erdiko neska-mutil bikiak dauzkadan ama bat naiz. Adin horretarako arropa behar dut. Soberan badaukazu, gustora hartuko nuke berrerabiltzeko. Mila esker. Rene (gaztelaraz): 843-98324

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

Kotxerak	Antxisu	Institutua	Antxisu
07:40*	07:45*	07:50*	07:55*

*Eskola egunetan

JAIOTAKOAK

Joana Gonzalez Gallego. Ekainaren 18an.

HILDAKOAK

Juan Goyaran Leiceaga. Ekainaren 16an.
Ricardo Izaguirre Alday. Ekainaren 22an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 23 ORUE
Larunbata, 24 ACHA-ORBEA
Igandea, 25 ACHA-ORBEA
Astelehena, 26 DE MIGUEL
Asteartea, 27 LASA
Asteazkena, 28 ACHA-ORBEA
Osteguna, 29 GIL

EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO: Txintxarri erredakzioan 943 37 14 48

- Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €
- Eskela mota guztiak paperean: 80 €

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa

Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega,
Martin Vicoso, Lorena Lujanbio
Adrian Garcia

Publikitatea

Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Seguroa,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa

Xabier Amadoz

Administrataria

Nerea Garciaarena

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 23

LASARTE-ORIA Ospakizuna
San Joan suan urteko oroitzapen eta usadio txarrak erreko dituzte herritarrek. Erketz EDT taldeak lagunduta, dantzan joango dira udaletxe zaharretik Andatza plazara. Bertan, dantza gehiago egingo dute suaren inguruan.
Andatza plaza, 22:00etan.

LARUNBATA 24

HERNANI Kontzertuak
Hernanin San Joan festak ospatzen ari direla eta, Itziarren Semeak musika taldearen kontzertua izango da Urbieta kalean.
Urbieta kalea, 00:00etan.

HERNANI Erromeria
San Joan jaien egitarauaren barruan, erromeria eta Larrain dantza egingo dute, dultzaineroek lagunduta.
Plaza Berrian, 00:00etan.

IGANDEA 25

HERNANI Erromeria
Patxi Perez eta konpainiaren eskutik, dantzaldia izango da Urbieta kalean.
Urbieta kalea, 22:30ean.

HERNANI Dantzaldia
Gaubela musika taldeak emanaldia eskainiko du San Joan jaien egitarauaren barruan.
Ezkiaga pasealekua, 23:00etan.

ASTELEHENA 26

LASARTE-ORIA Haur jolasak
Lasarte-Oriako gaztetxoek haur jolasetan eta tailerretan parte hartu ahal izango dute.
Okendo plaza, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Gimnastika
Biyak Bat helduen egoitzako kideek, gimnastika erakustaldia egingo dute Maialen Chourraut udal kiroldegian.
Udal kiroldegia, 18:00etan.



LASARTE-ORIA Haurren txupinazoa.

San Pedro jaiak
Semblante Andaluz elkarteak arduratuko da aurtengo San Pedro jaiak hasiera emateaz. Ekainaren 28an, 12:00etan, elkarteko gazteek jaurtikiko dute txupina udaletxe zaharretik. Asteazkena 28, udaletxe parean, 12:00etan.

ASTEARTEA 27

LASARTE-ORIA Sorgin Jaiak
Sorgin jaiak antolatuta, Oria ibaiaren jaisiera egingo da.
Oria ibaia, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Abesbatza
Biyak Bat helduen egoitzako kideek osatutako koruaren emanaldia izango da Atsobakar zahar-etxean.
Atsobakar egoitza, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Jolasak
Sorgin jaiak antolatuta, gazteentzako jolasak, tailerrak eta karaokea izango dira Antonio Mercero plazan.
Antonio Mercero, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Herri afaria
Lasarte-Oriako Okendo plazan herri afaria egingo dute, Sorgin jaiak antolatuta.
Okendo plaza, 20:30ean.

ASTEAZKENA 28

LASARTE-ORIA Sari banaketa
San Pedro jaien egitarauaren barruan, Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako Patxintxi sari banaketa egingo da.
Udaletxean, 12:15ean.

LASARTE-ORIA Jaien hasiera
Lasarte-Oriako San Pedro Jaiak hasiera emango dieten txupina lehertuko da.
Okendo plazan, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Sorgin Jaiak
Sorgin jaiak ere txupina jaurti eta hasiera emango diete jai alternatiboak.
Okendo plazan, 21:30ean.

OSTEGUNA 29

LASARTE-ORIA Emanaldia
Extremadurako Etxearen eskutik, Extremadurako danbolin jotzaileen ekitaldia eta ogi-mamien dastaketa.
Okendo plazan 12:00etan.

LASARTE-ORIA Kantu-jira
Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta, euskal kantuen dantza-jira egingo dute herriko kaleetan zehar, Xumela eta beste talde batzuen laguntzarekin.
Udaletxean, 12:15ean.

LASARTE-ORIA Musika
Sorgin jaiak antolatuta, bertso gaua egingo dute herriko musikariek. Emanaldia amaituta, karaokean aritzeko tartea izango da.
Okendo plazan, 12:15ean.

ZINEMA

USURBIL

17:45, 20:20.
Igandea: 15:55, 17:45.
Astelehena: 15:55, 17:45.

URBIL

Baywatch: Los Vigilantes de la Playa
Ostirala: 15:50, 17:50, 19:30, 21:50, 00:40.
Larunbata: 15:50, 17:50, 19:30, 21:50, 00:40.
Igandea: 15:50, 17:50, 19:30, 21:50.
Astelehena: 15:50, 17:50, 19:30, 21:50.

Alien: Covenant
Igandea: 22:40.
Astelehena: 22:40

Capitán Calzoncillos: su primer película
Ostirala: 15:55, 17:45, 20:20.
Larunbata: 15:55,

Déjame salir
Ostirala: 22:30.
Larunbata: 22:30.
Igandea: 20:20, 22:30.
Astelehena: 20:20, 22:30.

El bebé jefazo
Ostirala: 15:45.
Larunbata: 15:45.
Igandea: 15:45.
Astelehena: 15:45.

La Momia
Ostirala: 15:45, 18:00, 20:20, 22:40, 00:55.
Larunbata: 15:45, 18:00, 20:20, 22:40, 00:55.
Igandea: 15:45, 18:00, 20:20,

22:40.
Astelehena: 15:45, 18:00, 20:20, 22:40.

Piratas del Caribe: La Venganza de Salazar
Ostirala: 16:50, 19:25, 22:00, 00:40.
Larunbata: 16:50, 19:25, 22:00, 00:40.
Igandea: 16:50, 19:25, 22:00.
Astelehena: 16:50, 19:25, 22:00.


Señor, dame paciencia
Ostirala: 15:45, 18:20, 20:20, 22:30, 00:50.
Larunbata: 15:45, 18:20, 20:20, 22:30, 00:50.
Igandea: 15:45,

18:20, 20:20, 22:30.
Astelehena: 15:45, 18:20, 20:20, 22:30.

Wonder Woman
Ostirala: 16:20, 17:10, 17:55, 19:10, 20:00, 20:45, 22:00, 22:50, 23:35, 00:35.
Larunbata: 16:20, 17:10, 17:55, 19:10, 20:00, 20:45, 22:00, 22:50, 23:35, 00:35.
Igandea: 16:20,

17:10, 17:55, 19:10, 20:00, 20:45, 22:00, 22:50, 23:35, 00:35.
Larunbata: 16:20, 17:10, 17:55, 19:10, 20:00, 21:15, 22:00.
Astelehena: 16:20,

17:10, 17:55, 19:10, 20:00, 21:15, 22:00.



LABURPENA

Wonder Woman
Zuz.: Patty Jenkins. **Herr.:** AEB (2017). **Gidoia:** Allan Heinberg. **Aktoreak:** Gal Gadot, Chris Pine, Robin Wright, Connie Nielsen, David Thewlis, Elena Anaya, Lucy Davis. **Iraupena:** 141 minutu.

Heroi baten jaiotza

Wonder Woman (Gal Gadot) izan aurretik, Diana zen, Amazoniako printzesa eta gerlari ikaragarria izateko entrenatua. Babestutako irla paradisiako batean hazi zen, gizartetik aldentuta. Pilotu estatubatuar batek (Chris Pine) istripua izan ondoren, irlara ailegatuko da, eta bertan Diana ezagutuko du. Gatazka handi baten, I. Mundu Gerraren, berri emango dio pilotuak.

Mehatxuari aurre egiteko gai dela konbentziturata, Dianak uhartetik ateratzeko hautua egiten du. Gizonekin batera

gerran borrokatu ondoren, Dianak bere boterea ezagutuko du, eta, bide batez, bere benetako patua.

DC komiki etxearen unibertso zinematikoko laugarren filma da *Wonder Woman*. Aurretik, *Man of Steel*, *Batman vs Superman* eta *Suicide Squad* egin dituzte.

Patty Jenkins zuzendariaren bigarren film luzea da. Aurretik, kritikak ondo hartutako *Monster* zuzendu du 2003an. Gal Gadot aktore nagusia berriz, akziozko film askotan aterata da.



GREMIOEN GIDA 2017

Arreta profesionalena, zugandik gertu



Igeltseritza



Arkitektura eta Barne-Diseinua

Josue Igeltseritza

606 37 21 05
josueigeltseritza@euskalnet.net

Atallu pol. 28
20170 USURBIL

Igeltseritza orokorra

Estalkien berriztatzeak
Fatxaden estaldurak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

josueigeltseritza@euskalnet.net

Uraitz, s.l.

Igeltseritza Orokorra

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 059 392 - 943 566 640
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria

borobil arkitektura

- Energia ziurtagiriak • Eraikinen ITEak
- Aktibitate lizentziak • Proiektuak
- Erreformat

Kale Nagusia 27-29 behea, Lasarte-Oria
943 50 78 51- info@borobilarkitektura.eus
www.borobilarkitektura.eus

SUGATE

SUKALDEAK ETA BARNE-ERREFORMAK

Pintore kalea 5, Lasarte-Oria
Tel: 943 36 14 71
sugatesukaldeak@gmail.com
www.sugate.net

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- ETXETRESNA ELEKTRIKO MARKA GUZTIAK



Iturgintza



Kristaldegia eta Leihoak



Elektrizitatea

ILLARRETA ITURGINTZA

- ERAKUSKETA ETA SALMENTA
- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA

Geltoki kalea 21, Lasarte-Oria
943 36 31 47 / 943 37 36 17 52
Tailerra: Oialume bidea 24, Astigarraga
info@illarreta.com

DEL ORIA KRISTALDEGIA

Uistin kalea, 11 (Zubieta Plaza)
Tel./Fax: 943 36 23 52 - M: 607 234 522

20160 LASARTE-ORIA

- ISPILUAK
- BEIRA APAINGARRIAK ETA ALAKATUAK
- MERKATARITZA-INSTALAZIOAK
- DUTXA-ITXIDURAK
- KRISTALGINTZA OROKORRA

ISU
25 urtez zuekin!

Mota guztietako leiho, pertsiana, manpara, toldo eta dekorazioko profesionalak zure zerbitzura

ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA, ALUMINIOA, PVC ETA POLIURETANOA

Kale Nagusia, 46 behea • Lasarte-Oria
Tel. 943 36 64 95 • Faxes: 943 36 52 22
ventanas_isu@hotmail.com
Pol. Ugaldea, 21 • 6 lokala, Usurbil

ELECTRICIDAD ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21
600 857 586 - www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

Hurrengo gida uztailaren 21ean.
Parte hartu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66 - publicitate@ttakun.eus